



ZEGAMA KO UDALA

2022KO EKAINAREN 7AN UDALBATZARRAK EGINDAKO OHIZKO BILKURAREN AKTA.

Udaletxeko Bilkura Aretoan, idazpuruko eguneko arratsaldeko seiak eta hogeita hamar minutu direnean, Alkateak deituta eta lehen deialdian, Udalbatzarra elkartzen da, jarraian adierazten gai zerrendarekin ohizko bilkura egiteko:

1.- AURREKO BILKUREN AKTEN ONARPENA (2022KO MARTXOAREN 22KO ETA MAIATZAREN 3KO BILKUREN AKTAK).

2.- UDAL ORDENANTZA FISKALEN ALDAKETA. UDAL LANGILE IZATEKO HAUTAPEN PROBETAN PARTE HARTUNAHI DUTENEI EMAN BEHARREKO ZERBITZUAGATIK TASA.

3.- 2023 URTEKO JAI EGUNA FINKATZEARI BURUZKO ERABAKIA.

4.- GOIERRIKO EKIMENA S.A. BATZAR OROKORREAN AZTERTUKO DIREN GAIEN ONARPENA.

5. ALKATETZAREN ERABAKIAK.

6.- GALDE ERANTZUNAK.

ETORRITAKO UDALBATZARKIDEAK:

ALKATE-LEHENDAKARIA

Joseba Izagirre Arozena jn. (Zegama Lantzen).

ZINEGOTZIAK

Izaskun Igoa Arizcorreta and. (Zegama Lantzen).

Ibon Zabaleta Urbizu jn. (Zegama Lantzen).

Iñaki Xabier Albizu Ormazabal jn. (Zegama Lantzen)

Julian Iraola Lapizondo jn. (Zegama Lantzen).

Imanol Garmendia Iruretagoiena jn. (EH Bildu).

Iosune Azurmendi Telleria and. (EH Bildu).

Aritz Agirre Garikano jn. (EH Bildu).

Jose Luis Azurmendi Larrea jn. (EH Bildu).

EZ ETORRITAKO UDALBATZARKIDEAK:

Bilkurakide guztiak bertaratu dira.

Idazkaria, Igor Alustiza San Vicente.

1.- AURREKO BILKUREN AKTEN ONARPENA (2022KO MARTXOAREN 22KO ETA MAIATZAREN 3KO BILKUREN AKTAK).

Alkateak, 2022ko martxoaren 22ko eta maiatzaren 3ko bilkuraren aktetan jasotakoari buruz



ZEGAMA KO UDALA

nolabaiteko oharpenik adierazi nahi duten galdetzen die batzar-kideei.

Ez da inolako oharpenik adierazten, eta beraz, aho batez onartutzat gelditzen dira adierazitako aktak.

2.- UDAL ORDENANTZA FISKALEN ALDAKETA. UDAL LANGILE IZATEKO HAUTAPEN PROBETAN PARTE HARTUNAHI DUTENEI EMAN BEHARREKO ZERBITZUAGATIK TASA.

Espedientea ikusirik eta Kontuen Batzorde Bereziak (eta pertsonala) 2022ko ekainaren 1ean egindako proposamena ikusirik.

Udalak, ezartzen dituen, zerga, tasa eta precio publikoen Ordenantza Fiskalen testua egokitzea komenigarria dela iritzi da, zentzu horretan, 2022ko zerbitzu publikoak eskaini eta jarduera administratiboak burutzeagatik ordaindu beharreko tasen ordenantza fiskal arautzailearen aldatuz, honako tasa hau ezartzeko:

10. Zegamako Udaleko langile izateko hautapen probetan parte hartu nahi dutenei eman beharreko zerbitzuengatik tasa.

Kuota. Izangai bakoitzak 20 euroko kuota ordaindu beharko du.

Tasaren ordainketa nominala izango da, indibidualizatua hautapen prozesu bakoitzeko, eta prozesu batean plaza bat baino gehiago badaude, ordainketa bat egin beharko da izena ematen den bakoitzerako, baldin eta hasierako ariketa diferentziatuta badago.

Proposamenak aztertu eta eztabaidatu ondoren, Udalbatzarrak, Zegama Lantzen taldeko etorritako bost zinegotzien eta EH bildu taldeko etorritako lau zinegotzien aldeko botoekin, aho batez, honako hau erabakitzen du:

Lehena.- Aipatutako proposamena onartzea.

Bigarrena.- 11/1989 Foru Arauan ezarritakoaren arabera, behin-behingo akordio hau, Udaletxe honetako iragarki oholean, 30 laneguneko epean jendaurren jarriko da, epe horren barnean, edonork, espedientea aztertu eta ondo deritzon erreklamazioak aurkeztu ahal izateko.

Era berean, jendaurren jartze hori, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da, epea, iragarkia argitaratzen den hurrengo egunetik zenbatzen hasiko delarik.

Jendaurren egoteko legezko epea igaro ondoren, inolako erreklamaziorik jaso ez bada, hartutako akordio hauek, behin-betikotzat joko dira, inolako akordio berririk hartu behar izan gabe.

3.- 2023 URTEKO JAI EGUNA FINKATZEARI BURUZKO ERABAKIA.

Euskal Autonomia Erkidegoko langileen 2023. urteko jaiegunen egutegia onartzeko den 56/2022 Dekretuko, 2. atalak ezartzen duenaren arabera, 2023. urteko jaiegunen egutegia osatzeko, lan ondorioetarako tokian tokiko jaietako bi egun ere, jaiegun izango direla adierazten da. Bi egun horien zehazpena, Lan eta Enplegu Saileko lurralde ordezkariak egiten dute, Udal bakoitzak egiten dituen proposamen arabera.



ZEGAMA KO UDALA

Zentzu horretan, tokian tokiko jaieguna proposatzeko eskaera egiten da.

Guzti hori kontuan hartuz, Udalbatzarrak, etorritako Zegama Lantzen taldeko bost ordezkarien eta EH Bildu taldeko lau ordezkarien aldeko botoekin, aho batez, honako hau erabakitzen du:

Lehena.- Ordezkaritza horri, Udalerrri honetako jaiegun bezala, 2023. urteko maiatzaren 29a (Mendekoste Astelehena) proposatzea.

Bigarrena.- Erabaki hau, Lan eta Enplegu Saileko Lurralde Ordezkaritzari jakinaraztea.

4.- GOIERRIKO EKIMENA S.A. BATZAR OROKORREAN AZTERTUKO DIREN GAIEN ONARPENA.

Goierriko Ekimena S.A. ko Administratzaile bakarrak idatzia helarazi du jakinaraziz, Goierriko Ekimena S.A. sozietateak 2022ko martxoak 28-ko Administrazio Kontseiluan onartutakoarekin bat, eta prezeptu legal eta estatupenekoak betetzeko asmoz 2022ko ekainaren 20an arratsaldeko 16:00etan Oihoko Batzar Orokorra burutuko dela eta honetarako deia eginez. Era berean, gai zerrenda bidaltzen da eta 2021eko auditori txostena.

Zentzu honetan, Batzar Orokor horretan aztertuko diren gaiak, udal bakoitzak aurrez azertu eta erabakitzea komeni dela kontuan hartuz, Alkateak, adierazitako agirien berri eman eta hauen onarpena egitea proposatzen du.

Proposamena ikusirik, Udalbatzarrak, aho batez, honako hau erabakitzen du:

Lehena.- Goiekiren 2021. Batzar Orokorrean aztertuko diren gaiak eta Memoria, Balantzea, Irabaz eta galeren kontuak eta emaitzaren aplikazioa onartzea.

Bigarrena.- Erabaki hau, hala badagokio, GOIEKlri jakinaraztea.

5. ALKATETZAREN ERABAKIAK.

Idazkariak, azkeneko ohiko bilkuratik, Alkateak hartutako ebazpenen berri ematen du:

- 02/0522 erabakia, maiatzaren 11koa, 8 zenbakidun fakturen erlazioa (maiatza) - guztira 54.239,62 euro- onartuz.
- 03/0522 erabakia, maiatzaren 12koa, egurra ateratzeko baimena bideratuz eta fidantza ezarriz.
- 04/0522 erabakia, maiatzaren 13koa, euskararen erabilera normalizatzeko planaren kudeaketa eta laguntza teknikoaren zerbitzua Emun Koop.E. ri esleituz.
- 05/0522 erabakia, maiatzaren 16koa, udaleku irekietarako dinamizatzaile-hautagaien zerrenda onartuz.
- 06/0522 erabakia, maiatzaren 19koa, kale-garbitzaile zaharra suntsitzeko Desguaces Osinalde S.L. enpresari zegozkion agiriak helaraztea aginduz.
- 07/0522 erabakia, maiatzaren 20koa, Aizkorri Mendizale Elkartek ekainaren 11n mendi-proba antolatzeke egindako eskaera onartuz.
- 08/0522 erabakia, maiatzaren 23koa, udaleku irekietarako dinamizatzaile-hautatuen zerrenda onartuz



ZEGAMAKO UDALA

- 09/0522 erabakia, maiatzaren 31koa, 9 zenbakidun fakturen erlazioa (maiatza) - guztira 65.537,85 euro- onartuz.
- 010/0522 erabakia, maiatzaren 31koa, hilerriko gorpuzkiak lurpetik atera eta lekuz aldatzeko baimena emanaz.
- 011/0522 erabakia, maiatzaren 31koa, obra txikiko lan baimena emateari buruzkoa.
- 012/0522 erabakia, maiatzaren 31koa, hirigintza lizentzia ukatuz, zuzentzeko moduko akatsak edukitzeagatik.
- 01/0622 erabakia, ekainaren 1ekoa, obra handiko lan baimena emateari buruzkoa (San Juan Etxe).

6.- GALDE ERANTZUNAK.

- Imanol Garmendia Iruretagoiena zinegotziak (EH Bildu), Euskitze Zaharreko bidearekin zein arazo dagoen galdetzen du. Alkateak, hau azaltzen du, eta horrenbestez, txerrien ukulua egiteko lanen garapean udal inbentarioan udalaren bide bezala jasotako bide-zati bat okupatu zela adierazten da. Zentzu horretan, bideraren erabiltzaile batzuen kexa jaso zela azaltzen da. Ondorioz, eta sortutako egoera ikusirik, konponbide bat ematen saiatzen ari direla dio, beste bide bat irekitzeko dauden aukerak aztertuz. Puntu honetan Alkateak azaltzen du landa-bideetan jabetzak direla eta arazo ugari egoten direla eta era berean adierazten du, udalak ez dituela baliabide nahikorik bide guztiak mantentzeko (landa-bideen inbentarioa behin betikoz onartzeaz dagoela adierazten du idazkariak).
- Imanol Garmendia Iruretagoiena zinegotziak (EH Bildu) galdetzen du ea Zegamarrak izan eta bertan bizi ez direnak Maratoian parte hartzeko zegoen irizpidea (herrian gutxienez 15 urtez bizi izana) aldatu den. Alkateak adierazten du orain arteko baldintzak ez direla aldatu, eta honen inguruan, bilkurakideak irizpidea mantentzearen aldeko iritzia adierazten dute.

Aztertzeko gai gehiago ez dagoenez, hasieran aipatutako eguneko zazpiak direnean Alkateak bilkurari amaiera ematen dio, esandakoa jasoarazteko, nik egiaztaturiko eta Alkateak sinaturiko akta hau egiten dudalarik.